



2017ko ekainean, Enkarterriko Udalerrien Mankomunitateak oniritzia eman zion Artzentales, Galdames, Gordexola, Gueñes, Karrantza, Lanestosa, Sopuerta eta Turtzioz udalerrietarako egin zen Emakumeen eta Gizonen II. Berdintasun Planari.

Planean ezarritako ekintzen barruan, genero-indarkeria desagerrarazteko neurrien atalean, **herritarrentzako postontzia** ezartzea dago: postontziaren bidez, udalerriotan **emakumeentzat larriak edo arriskutsuak izan litezkeen puntuak ezabatzeko** proposamenak jasoko dira.

Horretarako, Mankomunitateak sarbidea gaituko du www.enkarterri.eus webgunean, **herritar guztiek egin ahal izateko ekarpenak eta adierazi ahal izateko zer iritzi duten euren udalerrian larritzat edo arriskutsutzat jotzen dituten guneei buruz, horrela gune horiek identifikatu eta ondoren ezabatu ahal izateko. Era berean, Berdintasun Planarekin bat egin duten udaletako edozeinen webgunetik ere sartu ahal izango da postontzi horretara, baita fisikoki ere, Mankomunitatearen egoitzan kokatutako postontzi baten bitartez (Inmaculada kalea 15, 48850 Aranguren- Zalla).**

Genero-ikuspegiaren eta emakumeen parte-hartze aktiboaren bitartez soilik lortu ahal izango da pertsona bakoitzaren errealitatera egokitutako hirigintza egitea, behar guztiak kontuan hartuz. Hirigintza inklusiboak eremuaren demokratizazioa dakar eta, gainera, eragina du pertsonen arteko harremanetan. Bestelako begirada bati –emakumezkoen begiradari– bide ematen dio, eta herritar guztiek inguruneko eremu guztiak baliatzeko aukera berberak izatea da kontua; eremuok beharrezko guztietara egokituta egon daitezela, eta segurtasunaren pertzepzioak ez dezala eraginik izan mugimendu-askatasunean. Termino horrek, besteak beste, gizarte-kohesioa, bizikidetzeta, parte-hartzea, segurtasuna, gogobetetzea, estetika eta irisgarritasuna biltzen ditu.

